# ARKEOIKUSKA

ARKEOIKUSKA
ARKEOIKUSKA

# 2014





# C.19. HONDARRIBIA

### C.19.1. San Enrike gotorlekua

Zuzendaritza: Mertxe Urteaga
Diru-laguntza emailea: Hondarribiko Ondarearen Aldeko Elkartea; Hondarribiko Udala

### C.19.1. Fuerte de San Enrique

Dirección: Mertxe Urteaga
Subvención: Hondarribiko Ondarearen Aldeko Elkartea; Ayuntamiento de Hondarribia

*Inside San Enrique fort, the remains of a large wall were found. The alignment of the wall bears no relationship to the constructive elements of the Carlist fort.*

Karlisten garaiko San Enrike gotorlekuaren hondakinak kontserbatu dira Jaizkibeleko gainean. Oin erregularra du, trapezoide itxurakoa; hegoaldean, alde luzeenean, 3 dorre ditu, aurkakoan, berriz, bat besterik ez.

Leku honetan Nerva enperadorearen garaiko txanpon bat berreskuratu zen, 96. urtean egina, eta 1985. urtean, Jaime Rodríguez Salísek hainbat zundaketa arkeologiko egin zituen, baina haietan ez zuten erromatarren garaiko erregistrorik atzeman.

Erromatarren garaiko beste erreferentzia batzuk ere badaude inguru honetarako: Ptolomeo geografoaren aipua, esate baterako, *Oiasso akron Purenes* puntu geografikoa aipatu batzuen hark, Higer lurmuturrarekin identifikatu dena, eta egile horrek berak Afrodita jainkosari eskainitako lekuari egindako aipamena. Informazio horiek eta lurrean erliebe bereizi bat egiaztatu izana (Lidar kartografiaren bidez ere nabaritua) aintzat hartu ziren zundaketa arkeologikoen programa bat planteatzeko.

Honekin batera aurkezten dugun Lidar kartografian egiaztatu daitekeen bezala, lerro bat nabarmenagoa nabari zen gotorlekuko horma perimetralen paraleloan. Lerrokadura horren ezaugarriak ezagutzeko eta eraikuntza baten hondakinekin loturik zeuden jakiteko, 2 x 1 metroko 3 kata ireki genituen irudiko geziek adierazten duten lekuetan.

En la cima de Jaizkibel se han conservado las ruinas del fuerte carlista de San Enrique. Presenta una planta regular con planta trapezoidal; en el flanco meridional y el de mayor longitud cuenta con 3 torres, mientras que en el opuesto solo tiene una torre.

En este lugar se recuperó una moneda de Nerva, acuñada en el año 96, y en el año 1985, Jaime Rodríguez Salís realizó varios sondeos arqueológicos que se saldaron sin registros de época romana.

Para este entorno se cuenta además con otras referencias de época romana: es el caso de la cita del geógrafo Ptolomeo nombrando el punto geográfico del *Oiasso akron Purenes* que se ha identificado con el cabo de Higer y la referencia dada por este mismo autor al lugar dedicado a la diosa Afrodita. Estas informaciones y la constatación en el terreno de un relieve diferenciado también advertido por cartografía Lidar sirvieron para plantear un programa de sondeos arqueológicos.

Como se puede comprobar en la cartografía Lidar que adjuntamos, se observaba una línea resaltada paralela a los muros perimetrales del fuerte. Para reconocer las características de esta alineación y su posible correspondencia con restos de una construcción se abrieron 3 catas de 2 x 1 m en los puntos indicados por las flechas de la ilustracción.





Gotorlekuaren airetiko argazkia eta Lidar kartografia.

Foto aérea del fuerte y cartografía Lidar.

Tarteko katan eta 20 cm eskaseko sakoneran metrobete zabaleko horma baten oinarriaren testigantzak aurkitu genituen; eremuko substratu geologikoan zuzenean oinarritua zegoen. Bitxia bada ere, haren lerrokadura ez dator bat lurreko erliebeak erakusten duenarekin, ez eta gotorlekuko barne aretoak irudikatzen dituzten informazio kartografikoekin ere. Bestalde, halako munta bateko eraikina izango zela erakusten zuen oinarriaren zabalerak. Ohikoa den bezala, ez genuen aurkitu egitura hura historikoki testuinguruan kokatzeko moduko elementu arkeologikorik.

En la cata intermedia y a escasos 20 cm de profundidad se reconocieron los testimonios de la base de un muro de 1 metro de anchura apoyado directamente sobre el sustrato geológico de la zona. Curiosamente la alineación que presenta no coincide con la expresada en el relieve del terreno, ni con las informaciones cartográficas en las que se representan las dependencias interiores del fuerte. La anchura de la base, parece indicar, por otra parte, que se trataría de un edificio de cierta entidad. Como es habitual, no se recogieron ajuares arqueológicos que permitan contextualizar históricamente la estructura.

*M. Urteaga*

## C.19.2. GI-636 errepidea, ospitaletik-Hondarribiko lotuneraino

Zuzendaritza: Pía Alkain
Finantzazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia

## C.19.2. Carretera GI-636, desde el hospital hasta el enlace de Hondarribia

Dirección: Pía Alkain
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

*Based on the material found, we can assert that we are looking at an open-air site dating from the mid Palaeolithic. Thanks to the ceramic remains found, there can be no doubt that the area was occupied during the protohistoric era.*

Aztarnategia Jaizubia auzoan dago, Gebaralarre baserriaren lurraldean zehazki –baserria gaur egun errepidearen beste aldean egon arren–, muino txiki baten muturrean, gaur egun errepide ondoan baina antzina Jaitzubiako paduraren mugan zegoen, Umako ihitokiaren gainean.

Jaitzubiako padurak eta bere inguruko muinoak, Zubieta Finkako aurkikuntzei esker, antzinako asentamenduak aurkitzeko kokaleku estrategiko bezala agertzen zirenez, GI-636an biribilgune berriaren eraikuntzaren obrako lur mugimenduak kontrolatzea interesgarria ikusi genuen.

El yacimiento se encuentra en el barrio de Jaizubia, concretamente en terrenos del caserío Gebaralarre –aunque el caserío actualmente se sitúa al otro lado de la carretera–, en el extremo de una pequeña colina. Hoy en día se sitúa al lado de la carretera, pero antiguamente se encontraba en el límite de la marisma de Jaizubia, sobre el juncal de Uma.

Gracias a los descubrimientos realizados en la Finca de Zubieta, las marismas de Jaizubia y las colinas del entorno se mostraban como lugares estratégicos en la búsqueda de asentamientos antiguos, por lo que consideramos interesante el control de los movimientos de tierras a efectuar en la construcción de la nueva rotonda.



Profil honetan agertu zen harrizko materiala.

Perfil donde se localizó el material lítico.

Egindako bisitei esker, hainbat eremuetan intereseko harrizko materiala aurkitu zen, baina material gehiena Bidasoa ospitaletik Txingudi ikastolara doan errepidearen zabalkuntzaren profilean azaldu zen.

Aurkikuntzak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultur sailari adierazi ondoren, bigarren azterketa zehatzagoa egin zen aipatutako profilean. Miaketa hau egin genuen printzipioz proportzio handiko aztarnategi bat adierazten zuen kopuru handiko harrizko materiala aurkitzen zelako.

Hau dela eta, Txingudi ikastolako profilean tamaina egokiko zundaketa bat egin zen, modu honetan aztarnategiaren ebaluazio egokia egin ahal izateko. Profilean eta zundaketan aurkitutako materialen bidez Erdi Paleolitoko aztarnategi baten aurrean gaudela esan dezakegu.

Bestalde, obra bukatu ondoren eta autobus geltoki berri bat eraikitzeko asmoekin, ospitaleko bidean muinoen profila berriro moztu egin zen eta egindako miaketan zeramika protohistorikoen zatiak aurkitu ziren. Hau dela eta, aztarnategia ikerketa sakon baten zain geratu da.

Como consecuencia de las visitas llevadas a cabo descubrimos en diferentes zonas un conjunto interesante de material lítico, auque casi todo el material quedó al descubierto en el perfil de la ampliación de la carretera que va del hospital a la ikastola Txingudi.

Tras notificar los descubrimientos al departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa, llevamos a cabo un segundo examen más minucioso. La prospección se llevó a cabo porque se encontraba una gran cantidad de material lítico que en principio sugería un yacimiento de grandes proporciones.

Siendo eso así, realizamos un sondeo de grandes dimensiones en el perfil del lado de la ikastola de Txingudi con el fin de poder evaluar el yacimiento. Teniendo en cuenta el material descubierto en el perfil y en el sondeo, podemos decir que nos situamos ante un yacimiento del Paleolítico Medio.

Por otro lado, tras finalizar las obras y a propósito de la construcción de una nueva parada de autobús, se realizó otro corte en la pequeña colina hacia el hospital, y en los trabajos de prospección llevados a cabo se descubrieron restos de cerámicas protohistóricas. Por tanto este yacimiento queda a la espera de una gran investigación.

*P. Alkain Sorondo*

# C.20. **IRUN**

## C.20.1. **Ttutturru**

Zuzendaritza: Mertxe Urteaga

*This intervention failed to produce any results of interest.*

Esku hartze honek ez digu intereseko emaitzarik eskaini.

C.20.1. **Ttutturru**

Dirección: Mertxe Urteaga

Esta intervención no ha presentado resultados de interés relevante.

*M. Urteaga*